

XXVI.

EUSKAL TXISTE

GRAFIKOEN

LEHIAKETA

2017



HONDARRIBIko UDALA



UDAL
EUSKARA ZERBITZUA
HONDARRIBIA



OINARRIAK

Lehiaketa honetan edonork parte har dezake.

Lehiaketak 3 maila izango ditu:

A: 16 urtez gorakoentzat

B: 12 urtetik 16 bitartekoentzat

D: 12 urtetik beherakoentzat

Gaia eta teknikak libreak izango dira.

Lan bakoitzak bineta bat bakarrik izan beharko du eta ezinbestekoa da "bokadiloaren" teknikaren erabilera.

Narrazioaren bidezko txisterik ez da onartuko.

Testua ezinbestekoa da eta euskaraz izan beharko du.

Neurriak:

A eta B mailatan DIN A-3

D mailan DIN A-4

Lan bakoitzak bere izenburua izango du eta lanarekin batera gutun-azal itxi bat aurkeztuko da datu hauekin: gutun-azalaren gainean lanaren izenburua eta zein mailatan aurkeztu den, eta barruan egilearen izen-abizenak, adina, helbidea eta telefonoa idatziko dira; eta nortasun-agiriaren kopia ere erantsi beharko du baldin badu.

an bakoitzak bere izenburua izango du eta lanarekin batera gutun-azal itxi bat aurkeztuko da datu hauekin: gutun-azalaren gainean lanaren izenburua eta zein mailatan aurkeztu den, eta barruan egilearen izen-abizenak, adina, helbidea eta telefonoa idatziko dira; eta nortasun-agiriaren kopia ere erantsi beharko du baldin badu.

Lanak aurkezteko epea 2017ko urriaren 31n amaituko da. Ordurako BAZen (Biztanleen - arreta Zerbitzuan) aurkeztu beharko dira edota posta-kutxan sartuak egon beharko dute.

.Hondarribiko Udalak antolatutako lehiaketa saritutako lanak Hondarribiko Udalaren esku geratuko dira eta Udalarena izango da lan horiek erakutsi eta argitaratzeko eskubidea, egilearen izena adieraziz. Lan hauek prentsa idatzian, ohiko argitalpen modura edota internet sarean edo erakusketa baten bidez eman ahal izango ditu ezagutzera. Egileek ez dute jabetza eskubiderik jasoko Saririk jasotzen ez duten lanak Hondarribiko Udaleko Euskara Sailean jasotzeko ahal izango dira 15 eguneko sari banaketa egiten denetik. Epe horren ondoren egileek ezingo dute lanik berreskuratu.

Epaimahaia Udal Euskara Batzordeak izendatuko du.

Epaimahaiaren erabakia apela ezina izango da.

Zerzuz gertaturik ere, sariketako partaideak ontzat eman beharko dute Udalaren erabakia. Epaimahaiaren ustez lanek behar adineko mailarik ez badute, saria eman gabe urzi ahal izango da.

Saritutakoek bi asteko epean bidali beharko dute, Hondarribiko Udaleko Euskara Zerbitzuko helbide elektronikora euskara@hondarribia.eus, edo posta arruntaz (Hondarribiko Udala,

Euskara Zerbitzua Kale Nagusia 20, Hondarribia) banketxe edo aurrezki-kutxak emandako agiria, urte horretan kontuaren titularra bera dela egiaztatzen duena.

SARIAK

A Maila

1. saria: 300,00 €.

2. saria: 200,00 €

B Maila

Maila bereko bi sari

Saria: 150,00 € eta komiki-liburuak

Saria: 150,00 € eta komiki-liburuak

D Maila

Maila bereko bi sari

Saria: Komiki-liburuak

Saria: Komiki-liburuak.

Oharra: Sari hauei %21 kenduko zaie PFEZerako.(300 €tik gorako sariet).

